

Enpresen KONFIANTZA

2021EKO 2. HIRUHILEKORAKO
AURREIKUSPENAK

Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa



LABORAL
kutxa


2021EKO 2. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK



0 | INGURUNEA


LABORAL Kutxak Industria Konfiantzari buruzko inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei, 2021eko bigarren hiruhilekorako dituzten aurreikuspenen berri izateko. Bada, aurrekoaren ildo beretik, emaitza negatiboa da, COVID-19ak ekarritako osasun-krisiaren eraginez. Kasuak berragertzen ari diren honetan, funtsezkoa da osasunaren eta ekonomiaren interakzioa nolakoa izaten ari den aztertzea. Nolanahi ere, egoerak apur bat hobera egingo duela ematen du, oraindik zalantzakorra den arren.

Hasteko, enpresek INGURUNE EKONOMIKOARI buruz dituzten aurreikuspenei erreparatuta, % 49,4k uste du egoerak okerrera egingo duela egungo hiruhilekoarekin alderatuta. Beraz, ekonomiaren bilakaerari buruzko ikuspegi negatiboa da nagusi.




1 | FAKTURAZIOA

2021eko bigarren hiruhilekoari begira, enpresek aurreikuspen negatiboak dituzte FAKTURAZIOARI dagokionez. Hain zuzen, inkesta egin duten enpresen % 32,5ek uste du fakturazioa apalagoa izango dela, % 46,2k antzekoa izango dela eta % 21,3k hobera egingo duela.




2 | JARDUERA

Aurreko adierazlearekin bat, eta 2021eko bigarren hiruhilekoan espero den jardueraren bilakaeraren aurrean, % 35,4ren iritziz okerrera egingo du eta % 16,9ren arabera hobera. Gainerako % 47,8ren ustez, JARDUERAN ez da aldaketarik izango.




3 | ESKABIDEAK

Saldutako kantitateek eta prezioek izango duten bilakaera da berehala sortzen den zalantza, gako horiek baitaude fakturazioaren eta jardueraren inguruko aurreikuspenen oinarrian. Ildo horretan, ESKABIDEEN mailak behera egingo duela espero da. Ondoren agertzen den irudian ikus daitekeenez, inkestari erantzun diotenen % 30,9k uste du bolumenak behera egingo duela eta % 20,7k hohera egingo duela. % 48,4k antzeko eskabide-bolumena aurreikusten du hurrengo hiruhilekorako.




4 | PREZIOAK

Era berean, PREZIOEI dagokienez, % 28,3ren iritziz txikiagoak izango dira, eta % 60,2ren arabera egonkor jarraituko dute.



5 ERRENTAGARRITASUNA


Eragiketen errentagarritasunaz galdetuta, % 89,2k erantzun du «txikiagoa» edo «berdina» izango dela; % 10,8k etekin handiagoa lortzea espero du.



6 | INBERTSIOA


Orain arte aztertutako datuek egoera negatiboa erakusten dute. Jarraian ikusiko dugunez, enpresek atzeratu egin dituzte inbertsio-planak etorkizuna argitu arte, egungo egoeran gehiegizko ahalmena dutelakoan.

Inbertsio-bolumenari dagokionez, enpresen % 30,3k uste du behera egingo duela **2021eko bigarren hiruhilekoan**. % 13,7k, berriz, inbertsio-bolumenak gora egitea espero du. Beraz, inkesta egin dutenen % 56,1en ustez, eutsi egingo zaio.



7 ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 72,3k erantzun du ENPLEGUAN ez duela aldaketarik espero; % 15,9k langile-taldea murriztu egingo dela, eta % 11,8k guztiz kontrakoa (plantilla handitu egingo duela).




2021EKO BESTE ADIERAZLE BATZUK



8 KONFIANTZA-INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazleak (inguruneari buruzko iritzia izan ezik) gehitu eta haztatzen baditugu, **42,8ko** konfiantza-indizea lortuko dugu. Beraz, nabarmen egin du gora joan den hiruhilekoarekin alderatuta (**31,4**). Nolanahi ere, enpresek ekonomiaren bilakaerari buruz duten ikuspegia ezkorra da **2021eko bigarren hiruhilekoari** begira. Hala, indizearen balioa 50etik behera dagoenez, uzurtze-eremuan gaude (atzeraldian).

Bukatzeko, inkestan jasotako beste gai batzuen inguruko emaitzak aurkeztuko dizkizuegu jarraian, aurretik azaldutako indizearen osagai ez direnak. Esportazioek azken urtean izan duten bilakaerari erreparatuta, inkestatuen % 54,4k uste du okerrera egin dutela, eta % 5,3k, berriz, hobera egin dutela. % 40,4ren iritzian, kanpoko salmentek bere horretan jarraitu dute.




9 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean BERRIKUNTZARI edo I+Gko ekimenei bideraturiko salmenten ehunekoari dagokionez, inkestatuen % 78,9 balio minimoetan kokatzen da: % 0 eta % 1 artean. Bestalde, % 3,8 % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




10 BEZEROEI KOB RATZ EKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 68,2ren ustez, BEZEROEI KOB RATZ EKO EPEAN ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta luzatu egin da enpresen % 24,8ren iritziz. Hala, enpresen % 7,0ren esanetan, kobratzeko epea laburtu egin da.



11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA

Amaitzeko, inkestaturen % 69,7k erantzun du BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO aukerak ez duela aldaketarik izan azken urtean. Gainerako enpresei dagokienez, % 20,4k dio hobetu egin dela, eta % 9,9k lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.






2021EAN ADIERAZLEAK IZAN DUEN
BILAKAERAREN LABURPEN-DIAGRAMA

12 ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Diagrama honetan, aztertu ditugun azken bi hiruhilekoetako aurreikuspenen adierazle partzialen balioa eta osoko balioa ikus daitezke.

Enpresen aurreikuspenak



Fitxa teknikoa eta metodologia

EAEko 400 enpresari egin zaie inkesta
